

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ospitalegunek bere mediku-zerbitzuen bateratzearekin amaitu du, 70tik 42ra pasatuz

16 mediku-zerbitzu bikoiztuta zeuden ospitale-zentroetan eta 14, hirukoiztuta

Lunes, 23 de marzo de 2015

Aste honetan Psikiatriako Zerbitzu Bateratua sortuta, Nafarroako Ospitaleguna 70 zerbitzu izatetik 42 izatera pasatuko da. Nafarroako Ospitaleguneko Mediku Zerbitzuak [bateratzeko prozesu](#)aren amaituko da, horrenbestez.

Lau urteko lan-etapa itxi da horrela, eta Osasun kontseilari Marta Verak esan duenez, "zuzendaritza-taldeari nahiz era batera edo bestera tartean izan diren profesional guztiei lan handia eragin die".

Bateratze honekin zenbait helburu lortu nahi ziren: egitura sinplifikatzea; kudeaketa eta antolaketa hobetzea; laguntza-kalitateak aurrera egitea laguntza prozesuak eta profesionalak espezializatuz; jardunbide onenak zabaltzea eta laguntzako prozesu nahiz protokoloak bateratzea; azkenik, eraginkortasuna handitu nahi zen ere eskalako ekonomiak ezarriz eta bikoiztutako nahiz hirukoiztutako zerbitzuak kentzea.

Prozesu honen emaitza egitura berri bat da, eta bertan Zerbitzu Buruzagitzak 34tik 20ra murriztu dira eta Atal Buruzagitzak 51tik 64ra igo.

Beste egitura batzuk bateratu dira, gainera, esaterako: Giza Baliabideen Zerbitzuak, Zerbitzu Orokorak, Zuzendaritzari Laguntzeko Zerbitzuak eta Informazio Sistemak. Eta mediku-zerbitzuetan izandako bateratzearen ondorioz ere, Erizaintzako Zerbitzuak egokitu dira.

Guztira, Nafarroako Ospitaleguneko egituraren % 66 aldatu da.

Beharrezko prozesua

Prozesu hori apirilaren 12ko Foru Dekretuan aurreikusita zegoen jadanik; haren bidez. NOZ-O-ren Nafarroako Ospitaleguna sortzen zen, eta Comptoseko Ganberak "2004ko ekitaldiko NOZ-Oren ospitaleen sare publikoko zerbitzu orokorrak" izeneko bere txostenean egindako gomendio



Mediku-zerbitzuen % 66k bateratze-prozesuren bat izan du.

bat zen gainera". Txosten horretan gomendatzen zuenez, "Iruñeko ospitale-barrutirako aztertu beharko zen ospitale bakoitzeko banakako zerbitzu orokorrak emateko egungo era eraginkortasunaren eta ekonomiaren printzipioei egokitzen zaizkien."

Azkenik, "2006-2012 Nafarroako Osasun Plan"-ean aurreratutako aurreikuspena zen ere; haren helburua Iruñeko ospitale-eremuari dagokion laguntza-eskaintzaren beharrezko koordinazioa eta arrazionalizatzea bermatzea da, ospitaleak integratuz antolaketa funtzionaleko eredu bat garatzeko asmoz.

Bikoiztutako eta hirukoiztutako zerbitzuak

Gaur egun Nafarroako Ospitalegunea osasun-sare bat da, eta bertan 5.500 profesionalak lan egiten dute eta 1.100 ohe ditu. 2014an 41.000 ospitaleratze izan ziren, 31.600 ebakuntza, 729.000 kontsulta eta larrialdietako 168.000 kasu artatu zituen.

Nafarroako Ospitalegunea sortu aurretik, Nafarroako ospitaleak 36 Mediku Zerbitzu zituen; Virgen del Camino ospitaleak, 28; eta Ubarmin klinikak, 6. Guztira, 70 zerbitzu, beraz.

Haietatik, Nafarroako ospitaleak berariazko 16 zerbitzu zituen (Bihotzaren Saila, Kirurgia Saila, Dermatologia, Endokrinologia, Dietetika, Gaixotasun Infekziosoak, Geriatria eta Etxez etxeko ospitaleratzea, Onkologia Medikua, Onkologia Erradioterapikoa, Medikuntza Nuklearra, Erradiofisika, Angiologia eta Kirurgia Baskularra, Kirurgia Torazikoa, Neurokirurgia eta Mikrobiologia) eta Virgen del Camino ospitaleak berariazko 9 zerbitzu zituen (Alergologia, Errehabilitazioa, Aho Kirurgia eta Aurpegi Masailetakoa Kirurgia, Kirurgia Plastikoa, Neurofisiologia, Genetika, Pediatria, Ostetria eta Ginekologia eta Kirurgia Pediatrikoa).

Nolanahi ere, bi ospitaleetan 14 zerbitzu zeuden bikoiztuta (Larrialdiak, Neurologia, Hematologia, Medikuntza Prebentiboa, Otorrinolaringologia, Digestiboa, Neumologia, Medikuntza Intentsiboa, Oftalmologia, Urologia, Nefrologia, Anatomia Patologikoa eta Psikiatria) eta 6 hirukoiztuta (COT-Traumatologia, Analisi Klinikoa, Erradiologia, Farmazia, Anestesia eta Barne Medikuntza), hau da, zerbitzu guztien bi heren. Bateratzeko prozesuak Nafarroako Ospitaleguneako egituraren bi hereni eragin die, beraz.

Prozesua, partaidetza eta iraupena

Zerbitzuak bateratzeko prozesuak konplexuak dira. Diziplina anitzeko lan-talde teknikoak sortzea barneratzen zuen metodologia bat behar izan zuen, tartean zeuden zerbitzuen profesionalekin, eta haren helburua egitura berri bat proposatzea eta bateratutako zerbitzuaren antolaketa egitea zen.

Proposamen hori Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari eta Osasun Departamentuari igortzen zitzairen, eta Antolaketa nahiz Modernizazioko eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren idazkariaren txostena jasotzen zuen. Jarraian, zerbitzua sortzeko foru-agindua onartzen zen, eta buruzagitzak izendatzen.

Guztira, 2010. urtetik (prozesua hasi zenetik) 20 zerbitzu bateratu dira, eta haietatik bik (Larrialdiak eta Mikrobiologia) ez zuten laneko talde teknikorik izan.

2012ko azken lauhilekoa eta 2013ko lehena jarduera gehieneko aldiak izan ziren; 8 bateratze-prozesu egin ziren aldi berean.

Prozesuan 196 profesionalak parte hartu dute lan-talde teknikoetan, 12 profesionalak taldeko, batez beste. Banakako zerbitzuak bateratzeko batez bestekoa 11,5 hilabetekoa izan da, nahiz eta jadanik askoz gehiago landutako metodologia bati esker, legealdiko lehen erdiko prozesuek 1,6 batez bestekoa izan zuten, eta bigarren erdikoek 6,4koa.

Bateratzeak beste prozesu batzuk egin aurretik

Zenbait kasutan, bateratzea beste prozesu garrantzitsu batzuen aurretiazko baldintza zen. Hala, Larrialdi Zerbitzuen bateratzea Larrialdien eraikin berria sortu aurretik egin behar zen; Traumatologia Zerbitzua bateratzea, Ubarminen ebakuntza-gela berriak sortzeko baldintza; Analisi Klinikoen Zerbitzua

bateratzea Nafarroako Laborategi Bateratua ezarri aurretik, eta Zerbitzu Digestiboa bateratzea koloneko eta ondesteko bahetze-programa ezartzeko.

Beste mugarri oso garrantzitsu bat preskripzio bakarra izan da; protokoloetan aurrerapen handia da hori, ospitale batean eta bestean ezberdina baitzen, eta ezin zena gertatu Farmazia Zerbitzuak bateratu baino lehen.

Azkenik, Medikuntza Intentsiboko Zerbitzua bateratzea UCIS berriak eraiki aurreko baldintza zen, eta Barne Medikuntza bateratzea, gaixo kronikoen programa ezartzeko baldintza.